


BERBAROTARRA 10. zk. 1996ko urria

B eredutik euskarara

Jakingo duzue, OHOk ikasketak A, B eta D ereduan egin ahal izan direla orain arte eta BBB oster A eta D ereduan bakarrik. Hau da, zortzigarren maila arte

ahozko euskara eta ulermena hobetzeko asmoz. Horrez gain, ikasteko teknikak landu dira, baita informatika eta sexualitate tailerrak ere. Dena eskolako hiztegi teknikoak landu ahal izateko.



Horretarako, B ereduko ikasleek eta, laguntza modura, D eredukoek hartu dute parte kanpamenduan. Guztira 24 ikas-

euskara hutsean, erdara hutsean eta bietara, eta zortzigarrenetik aurrera, euskaraz ala gaztelaniaz. Hori dela eta, B ereduan ibilitako ikasle batzuen gurasoak eskatuta, Berbarok "B eredutik euskarara" izeneko kanpaina antolatu zuen irailaren 6tik 18ra bitartean. Asteburuetako irteerak, espeleologia, mendi irteerak, antzerki tailerra eta abar luzea egin dira,

le izan dira, Durangokoak, Iurretakoak eta Matienakoak. Ekimena arrakastatsua izan da, ageri-agerikoa izan baita B eredukoek euskararen erabilera emaniko aurrerapausua. Hori dela eta, ekintza honi urtean zehar jarraipena ematea pentsatu dugu eta horretarako Olgetanekoekin batera ekintza batzuk egingo dira.

Loteria denon artean

Jasoko zenuen egunotan bazkideen artean salduko dugun loteriari buruzko gutuna. Puntu garrantzitsu batzuk gogoraraziko dizkizugu. Loteria saltzea borondatezkoa da. Ezetza eman ahal diozu.

Baina saltzea erabakitzen baduzu eta papeleta gehiago nahi badituzu, deitu Berbarora. Bazkide bakoitzak 20 numero baino ez ditu jasoko. Papeleta bakoitzak 250 pta. balio ditu. Horietatik, 50 elkartearentzat izango dira. Urriaren 14tik 18ra bitartean loteria etxera helduko zaizu. Guztiak saltzerik ez baduzu, ez

arduratu eta Berbarora ekarri abenduaren 11 baino lehen. Dirua abenduaren 12an jasoko zaizu bankutik.

Bazkide batek esan digu bankutik kobratzearena ez zaiola ondoegi iruditu. Ulgarria da, bankuko zenbakia eman zenigutenean kuota jasotzeko bakarrik eman zeniguten eta. Geure asmoa zuei lana erreztea izan da eta banan-banan dirua (5000 pta, guztia saldu ezker) gure kontuan sartzen ibili beharrean, erosoagoa iruditu zaigu ardura hori guk geuk hartzea eta horretarako hau iruditu zaigu biderik aproposena.

BAGABILTZA BAGABILTZA

Duela hiru bat urte, merkealdien kanpaina hasi genuen Durangoko dendarien artean. Merkealdien kanpainari ekiteko, *Normalizazio plana*-ren aurrekontuetatik zati bat erabiltzea proposatu genion Durangoko Udalarari. Dendariek urtero egiten dute pare bat aldiz merkealdien kanpaina: udakoa uztailean egiten da eta negukoa gabon ostean. "Merkealdiak" eta "beherapenak" iragartzen zuten kartel fosforito, polit eta txukunak eskaini genituen, dohainik (udalal ordainduta)

gainera. Kanpainak itzelzko arrakasta izan du eta aurtén, kanpainaren hirugarren urte honetan, guk ezer esan barik 65 dendarik euren kontura jarri dituzte kartelak.

Artez euskararen inguruko gaiak jorratzen duen enpresa da. Besteak beste, urtero euskaldunon gida argitaratzen du. Gida horretan, herri bakoitzean dauden dendari, mediku, artista, argazkilari eta abar agertzen dira, guztiak euskaldunak noski. Beste gida batzuk ere badaude,

baina publizitatearekin egindakoak eta euskara gutxi erabiltzen dutenak. *Artezen* gida hau, euskara hutsean eginda dago eta Durangori dagokion informazio guztia Berbarok eman die hiru lu bazkidek ekiniko azterketa lanaren ondoren.

Kopiagailu berria erosi dute institutuan eta lehendik zutena nori emango eta Durangon euskararen alde lanean dabilen elkarteari, Berbarori hain zuzen. Esker bero-beroak eman nahi dizkiegu institutuko guraso elkartekoei.

Txokoa

Uztailean txokoa zabaldu zenetik astiro-astiro martxa hartzen dabil. Antza, sufrimedu gehiago ematen



die gure bazkideei argazkiak egiteak dirua emateak baino. Edozelan ere, afariak egin egiten dira eta era guztietako jendea joaten da gainera. Entzun dugu afariak apuntatzeko urriko orria jarri eta berehala hasi zirela bazkideak San Faustoetarako lekua hartzera.

EKBren kanpaina

EKBkoek, euskararen aldeko kanpaina bati ekingo diote hemendik eta abendura bitartean. Laguntza beharko dutela esan digute eta hemen doakizue deia.

Kanpaina, "Eman euskarari berea" lemarekin egingo dute eta herriz herri egin beharreko lana ezingo dutenez egin, laguntza eskatu dute. Beraz, zuetako batzuk, prest bazaudete kanpaina honetan laguntzeko, argibideak Berbaron emango zaizkizue. Kanpaina honen berri gehiago komunikabideetan agertu da irailaren azkenengo egunetan eta edozelan ere bulegoan badugu EKBkoek bidalitako txostena.

EHEren kanpaina

EHEk ere kanpaina bati ekin dio. "abertzalea naiz, euskaraz mintzatzen naiz" lemarekin egingo dute eta beraiek ere laguntza eske etorri dira gugana. Abertzale sentitzen direnei zuzendua dago aipatutako kanpaina. Abertzalea izanik inkoerentzia hutsa delako erderaz hitz egitea. Kanpaina honi buruzko informazioa nahi duenak deitu dezala Berbarora. Edozelan ere, kanpainaren hasiera, urriaren 12an Donostian egingo dute manifestazio batekin.

Gurien bai! elkarte berria

Iurretarrendako zorionezkoa den berria izan dugu egunotan. Gurien bai! euskara elkarteak sortu berri dute Iurretan. Ikastola zaharreko kooperatibisten semeek egin dute posible elkartearen sorrera. Ikastola zaharrekin zer egin erabakitzeko batu eta euskararen normalizazioa helburu duen taldea sortu dute. Bederatzi bat hilabete pasa ibili dira taldea martxan

jartzeko planak egiten, beraz lan serioa ematen du benetan. Aurkezpen egunean Iurretako Udaleko pleno aretoa jendez gainezka zegoen.

Hainbat ekimen eta proposamen prestatu dituzte dagoeneko; jaietan, ohiturazkoa den painelua atera dute adibidez. Udaleko ordezkari



eskaera bat ere egin diote, euskararen erabilera eta ezagutzari buruzko azterketa egitea. Bazkide kanpaina ere hasi dute eta abendurako batzar nagusia egingo dute. Durangaldean euskararen aldeko taldeak bakoitzean gehiago gara *ensegida erderiek jai deuko.*

Ekintzen egitaraua

-Uztailaren 1etik 14ra bitartean Olgetanekoak Errezun egon dira.

-Uztailaren 16tik 31ra bitartean Guezan Ba!koak Ordesatik Izabaraino joan ziren mendiz mendi GR11 bideari jarraituz.

-Uztailaren 18an SAKATU rock talde Abadiñarrak jo zuen Berbaro tabernan


-Irailaren 19tik 26ra bitartean "Btik Dra kanpamendua" egin dute Berbarok eta Olgetanekoek elkarrekin.

-Irailaren 19an Eta zer? rock talde Berriztarrak jo zuen tabernan.

-Irailaren lehenengo ha-

mabostaldian Ismael Iglesiasen pinturen erakusketa egon zen tabernan.

-Irailaren bigarren hamabostaldian, Ourdaybi elkarrearen erakusketa izan dugu.



-**San Faustoetan**, Erazen txosna eta Berbaro tabernan lana egitea izango da hurbileneko ekintzarik garrantziskoena. Lanik ez duenak egiten, leku bi hoietara askotan joatea dute laguntzeko erarik onena.

-**Jaietan ere**, euskara erabiltzea oso garrantzitsua da.

-**Loteria** saltzeari ekingo diogu hemendik eta abendura bitartean.

-**Abenduan**, Gerediaga Elkartekoei lagunduko diegu azokan, prest bazaude deitu izena emateko lehen bait lehen.

Guezan Ba!

Ooh! Zelako penie! Udie amaittu da eta barriro be astokilloz beteriko klase zuri aspergarrixetara joeteko ordue heldu jaku.

Baiña lasai, hemen gagoz gu zuen pena guztixek arintzeko asmoz, barriro be gure energixa, gogo eta indar guztixaz.

Udako kanpamentue? Ke pasada! Kristona! Mundiala! Pirineo kantoiek goittik behera paseu doguz eta bertako txoko eta paraje danak rekorridu motxila eta txorizo bokata aldien. Egunien ziherrak toki batetik bestera ibili gara aldatza gora, aldatza behera, sasi bat aldendu sudur aurretik, erropak siketu errekie pasetarakuen ez garelako lar abilek izen, ure eran, barriro ure eran, anpollak kureu eta ordu sufrittu baiña era berien lagunarte atsegiñienien pasaeutakuen ostien, ondo merezitzeko afarixe jaten gañun. Gero, ilargipien, lumigasan inguruen batzen giñen danok, lehengo, oraingo eta betiko euskal

Ieup!



kantez gau izarratuek girotzen; lo seko jausi arte kantsauen kantsauaz. Bueno gehixau jakittek hurrengo urtien zeu be etorri eta ikusiko dozu!

Beste alde batetik, San Faustuek be hurbil dekoguz eta juendan urtien moduen, errekie bajetako prepetetan hasi gara, lau ohol eta soka pare bat hartute gure yatie eitten. Animatu zaittie duren garzietek eta erakutsi ez zariela imajinaziño bako muermo batzuk!

Bueno beste barik, tonelada bat baino astune nazela konturatzen hasitte nau eta kortau eiñ biher dot. Ondo ibili!

Irensgailua,
frigorifikoa eta
dendak behar
dituzte.

Olgetan eta Guezan Ba! gazte taldeek irensgailua, frigorifikoa eta etxean duzen kanping-denda zaharren bat behar dituzte, euren ekintzetan eta irteeretan erabili ahal izateko. Itzelezko mesedea egingo diezue horrelako trastoren bat ematen badiezue.

LARROSA

Zenbaki honetako larrosa zabaldu berria den *Mail Boxes* errekadu zerbitzua da. Egin duten publizitate guztian, euskarak gaztelaniaren presentzia bera du, edota handiagoa. Gu behintzat beraingana joango gara paketeak bidaltzera.



MAIL BOXES ETC.
Jose Antonio Aguirre. 2
48200 DURANGO
Tfno.: 620 42 55 Fax: 620 42 54

ARANTZA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Saila salatuko dugu atal honetan. Diru piloa balioko duen liburuxka banatu dute etxez etxe *Etxeko zaramari buruz jakin behar den guztia* tituluarekin. Euskara ere erabili dute. Azalpen guztiak gaztelaniaz eta laburpen-txoa euskaraz.

